

# beste laborantza ganbara bat posible da !

**E**uskal Herriko berezko laborantza ganbara aspaldiko eskakizuna da “Confédération paysanne” delako sindikateko kide den ELBk eramanik. Podere publikoen ezetz borobilari buru egiteko BATERA plataformaren dinamikaren barnean, laborantza ganbara alternatibo bat sortzea deliberatua izan zen. Munta handiko proiektua has-tear dagoen momentuan ELB-ko militante batzuek beren gogoetak azaldu dituzte 2004ko foroko atelier batean.

Hasi aitzin laborarien funtsezko betekizunak oroitarazi dituzte, hots, behar bezainbat kalitatezko jakiak ekoiztea alde batetik eta bestalde baserrialdea okupatu, zaindu eta zaintzea.

## Zer dira laborantza ganbarak ?

Izaera publikoko erakundeak dira eta partaide desberdinak biltzen dituzte : hauteskunderen bitartez hautatuak diren profesionalak alde batetik eta bestalde tokiko hautetsi eta Estatuko ordezkariak. Ganbarako misioak bi dira nagusi-ki : baserri mundu eta laborantzari buruzko arazo guztietaz iritziak eman eta norabideak finkatu, podere publikoek aplikatuko dituztenak eta bigarrenik, jendartearen beharrak kontutan harturik, laborariei beren ekoizpen lanetarako formakuntza eta laguntza ekarri.

Hainbat tasa, zerga eta laborariek ordainduriko zerbitzuek osatzen dute laborantza ganbara baten urteko buxeta. Euskal Herriari aplikatuz gero 1,8 milioi euro suposatuko luke.

Gaurko departamenduko laborantza ganbarak ez du erantzuten Euskal Herriko behar bereziei. Hauxe da ELB-ko jendeak, eta berrikitan Sarkozy Barne ministroak igorri espertek ere bere egiten duten diagnostia. Zergatik ote ? Azken 30 urteetan FNSEA laborari sindikata eskuindarrak kudeatzen duen ganbarako hautuek ez baitute kontutan hartu euskal lurraldearen berezitasun sozial eta ekonomikoa. Alabaina, garapen bitarteko gehienak artoaren ekoizpenari bideratu dituzte eta laborantza eredu produktibistaren eredu jarraikiz, delako quota eta sariak kontzentratu dituzte.

Ondorioz laborari berrien instalazioen %40a diru laguntzarik gabe egiten da. Laborari tipiak lagundu ordez, ganbarako teknikariek administrazio lanetan pasatzen dute denbora gehien. Haien ordez labore-elikagintzako enpresetako



saltzaileek laborariei laguntza eta kontseiluak ematen dizkiete, ekoizpena beren interesen arabera bideratuz noski.

Gaur egun Departamenduko laborantza ganbarak lagundu eta bultzatzen dituen ekoizpenen balore erantsia laborariak ez diren beste eragile batzuek bereganatzen dute. Gisa berean laborari tipiak eta arazo gehien dituzten zonaldeak baztertzen ditu. Hutsune horiek hainbat elkarte, indar sindikal eta militantek dituzte betetzen. Hala nola, kalitatezko ekoizpenak garatuz (etxe mozkina, laborantza biologikoa...), baserrien kudeaketa et laborantza iraunkorren aldeko laborari taldeak antolatuz edota laborari familiakoak ez diren gazteak laborari bilakatzen lagunduz. Dinamika guzti horrek ez du noski, laborantza ganbarako diru laguntzarik jasotzen.

## Iparraldeko

### Laborantza ganbara alternatiboa

ELB-ko sindikalistek, jendarteko beste sektoreekin batera sustatu nahi duten erakunde alternatiboa beste eredu batean oinarritzen da : laborantza iraunkorra eta ahal bezainbat laborariekin egina, hain zuzen. Laborantza eredu hau ekonomikoki eraginkorra eta sozialki bidezkoa izan behar da, kontsumitzaileak eta ingurumena errespetatuz. Hobesten dituen irizpideak hauek dira : autonomia, transmisioa, banatzailea, naturan txertatua, kalitatezkoa ekoizpenak eta tokiko garapena.

Eredu hori garatzeko Ipar Euskal Herriko laborantza ganbara alternatibo honek hiru zentzutan eraginen du. Alde batetik laborantzaren bilakaera finkatzen duten maila desberdinetako agintari politikoei buruz (departamendua, Erregioa, Estatua, Europa); bigarrenik laborariei buruz, laborantza metodo eta produkzio sisteman eragiteko; eta azkenik lurraldeko beste herritar sektoreei

buruz.

Hala nola, baserri munduko arazo guztietaz bere abisu eta iritziak emaiten dituen laborantza ganbarak kalitatezko ekoizpenak, enplegatuen sortzea eta produkzio sistema iraunkorrek laguntzeko erabaki politiko eta diru laguntzen alde jokatu du, baserri tipi, ertain eta laborantzako lanetan hasi nahi duten gazteei lehentasun emanez. Halaber etxalde guztien segida segurtatuko du, ahal bezainbat laborari lanean atxikiz.

Bestalde laborantza ganbarak ekoizpen, transformazio eta salmenta egitasmo berriak bultzatuko ditu egitura kolektibo batzuen bitartez. Adibidez ekoizle/kontsumitzaile, ekoizle, ofiziale/saltzaile partzuergoak sustatuko ditu. Zonalde eta laborarien arteko osagarritasuna lagunduko du. Kostalde/Barnealdearen arteko harremanak garatuko ditu, Hegoalde eta Iparraldearen artekoak era bai.

## Nola osatuko da eta nola ibiliko ?

Osaketari doakionez, partaide multzo desberdinak izanen dira : pertsonen multzoak eta batasun profesionalen multzoak. Bestalde kontsumitzaile eta ingurumena zaintzen duten elkarteek ere beren lekua izanen dute erakundearen.

Ibilmoldeari doakionez printzipio nagusia da laborariak berak aldaketen eragile izan behar direla, animatzaile eta teknikariek laguntza ekarri behar dietelarik. Ipar Euskal Herriko laborantza ganbaran finkatuko dira norabide politikoak eta hautu estrategikoak. Proiektuak elkarte eta laborariek sortu tresnekin batera gauzatuko dira.

Aurrekondua segurtatzeko ELB-ko sindikalistek hiru iturri lantzeko parada aurrikusten dituzte: jendartearen diru sustengua (indibidualak, elkarteak, enpresak eta abar...) Euskal Herri osoan, nahiz frantses estatuan, ELB partaide den laborarien konfederazioaren lagunt-